


# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure enpresak atea irekita dugu jende guztiarentzat. Hala ere, kamioia egokituta dago adineko pertsonentzat, hau da, 60tik gora dutenentzat, haiek izango direlako gure bezero segmentu potentzial nagusia. Gure zerbitzua ere prestatuta dago mugikortasun arazoak dituztenentzat, haiek etxetik asko mugitu beharrik izan ez dezaten eta gu izan gaitzen gure kamioiarekin beren atariraino iristen direnak.

Horrek ez du esan nahi, segmentu hauek lehentasunetik izango ditutela gure zerbitzuaren erabileran beste edozein biztanlearen aurrean (tratu hobea, merkealdi gehiago, abantaila gehiago...). Gure ileapaindegia edonork erabili dezake, baina gure enpresa adineko pertsonentzat eta mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat espezializatuta dagoenez, hauek izango dira erabiltzaile nagusiak, gutxien mugitu daitezkeenak eta laguntza hori gehien behar dutenak direlako.

Gure bezeroak, bereziki, Leioan biziko dira. Hala ere, Leioako inguruko herrietatik zein hirietatik ibiliko gara, besteak beste: Bilbo, Getxo, Barakaldo, Berango, Sopela eta Uribe Kosta. Horrela, gure herriko jendea erositakoa hori ematez gain, herritik eta hiritik gertu bizi diren pertsonen ere erositakoa ematen diegu, eta, horrela, guk bezero gehiago lortzen dugu.



Gure zerbitzua, batez ere, egina dago mugikortasun arazoak, aulki gurgildun batean daudenentzat edo adineko pertsonentzat. Aukera paregabea ematen diegu haien itxura fisikoa hobetzeko, zaintzeko eta mantetzeko modu eroso batean. Azkenik, beste bezeroentzat, gehienak gazteak, haiek nahi duten look-a sortzen saiatuko gara, gehienek nahia horixe delako, eta ezin bada, antzekoena egiten saiatuko gara, gure ile-apaindegitik pozik joan dadin.

